

LANDA EREMUARI BURUZKO GRADU ETA MASTER AMAIERAKO LANEN LEHIAKETA

Baztango Udalak, UPV/EHU, NUP, ESTIA eta Les Ateliers de Jours a Venir bazkideekin bultzatzen duen Ikertu NAhiEN proiektuak Landa Eremuaren inguruko Ikerketa sustatzea du helburu. Landa-eremuan ditugun gizarte, ekonomia, ingurumen edo osasun erronkak landu aldera, trantsizio ekosozial baterako bidearekin uztartuz.

Deialdiaren helburua:

Landa eremuaren inguruko erronka batean oinarrituriko gradu eta master amaierako lanak saritu nahi ditu *Ikertu NAhiEN* proiektuak.

Sari hauetarako deialdia egiten da:

- 1) 750 euroko lehen sari bana gradu eta master amaierako lan irabazleentzat.
- 2) 500 eurotako sari bana, bai gradu zein master amaierako bigarren saridun lanentzat.

Baldintzak:

- Landa eremuarekin eta trantsizio ekosozialarekin zerikusia daukaten gradu eta master amaierako lanak, 2021-2022 eta 2022-2023 kurtso akademikoen baitan aurkeztutakoak.

Gaien transbertsalitatea dela eta, **titulazio guztietara irekitako** deialdia da.

- Hizkuntza: Euskera, Ingelera, Gaztelania eta Frantsesa

Lehiaketara aurkezteko eskari prozedura:

Eskaerak Baztango Udalaren erregistro telematikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

www.baztan.eus

<https://sedeelectronica.baztan.eus/index.php/carpeta-ciudadana>

- Izen abizenak
- Titulazioa
- Unibertsitatea
- Lanaren titulua
- Aurkezpen data
- Lanaren txostenaren laburpena (maximo 10 orri, Times New Roman 12, PDF formatuan atxikituta).

- Zure lanak Landa eremuaren trantsizio ekosozialari egiten dion ekarpena (2500 karaktere PDF formatuan).

Deialdiaren ebazpena:

Gradu eta master amaierako lanen proposamenak jaso ondoren, Ikertu NAhiEN proiektuko bazkideek osatutako batzordeak aurkeztutako lanen edukiaren egokitasuna aztertuko du eta sail bakoitzeko bi onenak identifikatuko ditu (bai graduan, bai masterrean). Deialdia alkatetzak edo hark eskuordetutako organoak ebatziko du, proiektuko bazkideek osatutako batzordearen txostena kontuan hartuta, eta interesdunei jakinaraziko zaie. Deialdiaren ebazpenak gradu zein masterreko irabazleak eta bigarren sarituak izendatuko ditu.

Ebaluaziorako irizpideak:

1. Eduki berritzailea
2. Metodologia edo praktikan jartzea landa-ingurunearen, trantsizio ekosozialaren eta herritartasun globalaren ikuspegitik
3. Zehaztasuna helburuen eta emaitzen deskribapenean eta lorpenean
4. Landa-ingurunearen sentsibilizazioan eta trantsizio ekosozialean laguntzea
5. Garapena sustatzea eskubideen ikuspegitik eta genero-ikuspegitik (0-15 puntu).
6. Konponbideak bilatzea eta pentsamendu kritikoa sustatzea (0-10 puntu).
7. Landa-ingurunearen garapenerako eta trantsizio ekosozialerako helburuen txertatze-maila.

Deialdi honetan parte hartzen duten ikasleek Ikertu NAhiEN proiektuak Baztanen 2023ko udazkenaren hasieran egingen duen topaketan aurkeztuko dituzte beren ikerlanak, tokiko eragileekin zuzenean elkarreragiteko eta ezagutzaren transferentzia sustatzeko asmoz.

Dirulaguntza hau, oinarri hauetaz gain, honako hauek ere arautzen dituzte: Baztango Udalaren dagokion ekitaldirako Aurrekontua Gauzatzeko Oinarriak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea eta horrekin bat datozen gainerako legeak.

2.500 euroko sarien ordainketa 1-4100-4800001 aurrekontu-partidaren kargura egingen da.

Eskariak aurkezteko epea: 2023ko apirilak 1etik Ekainak 30arte (biak barne).